

Gurasoekiko harremana: unitateen laburpen didaktikoa

URTXINTXA proiektuak gurasoekiko harremana bideratzeko hainbat tresna proposatzen ditu unitateetan zehar. Ondoren ikus daitezkeen tresna berriz, hiruhilabete bakoitzari hasiera eman aurretik, garai horretan gelan landuko diren edukien berri emateko dago prestatuta. Gurasoei zuzendutako gutuna, gaien ikas-norabideen laburpena eta zenbait eduki zehatzen deskribapena (artelana, eta musika klasikoaren entzunaldia) aurki daitezke dokumentu honetan. Bestetik, gurasoek denboraz jakin dezaten, etxetik haurrek ezer ekarri behar badute, hori ere adierazten zaie, hala nola haurraren beharretarako irizpide nagusiak zein diren.

Irakasleei dagokie erabakitzea, informazio hau osotasunean bidaliko den ala ikastetxearen praktikaren arabera egokitu edo laburtuta bidaliko den.

Hiruhilabete hasieretan gurasoei bidaltzeko GUTUNA

Guraso adiskideok:

Hiruhileko berriari hasiera eman diogun honetan, hemen igortzen dizuet landuko ditugun gaien laburpen txiki bat, eta baita haurren garapenaren behaketarako erabiliko ditugun irizpide nagusien zerrendatxo bat ere.

Unitate bakoitzeko gaia, hainbat atalean banatu dugu. Unitateari, gehienetan, gaiarekin zerikusia duen ipuin batekin ematen diogu hasiera, ondoren, atal bakoitzaren inguruan, hainbat eduki lantzen ditugularik: hizkuntza arlokoak (olerkiak, igarkizunak, tradiziozko abestiak, euskaraz jolasteko abestiak e.a.), matematika arlokoak, musika arlokoak, plastika eta gorputz adierazpenekoak, nortasunari dagozkionak...

Bestalde, unitate bakoitzean artelan bat behatzen dugu (zenbaitetan, proposamenean oinarriturik, gure artelana ere eraikiko dugu) eta musika klasikoko obra baten ataltxo bat ere entzungo dugu. Obra horiek bere osotasunean etxean entzun nahi bazenituzte, beren aipamen bat ere bidaltzen dizuet.

Zuen haurrak gela barruan egiten duenaren berri izatea baliagarri izango zaizuelakoan, besarkada bat eta beste bat arte.

TTANTTO

Lehen hiruhilabeteen gurasoei bidaltzeko IKAS_NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

1. gaia IKASTOLA. Ikastolako lagunak

- Urte osoan zehar *maskota* edo bidai lagun izango duten *Ttantto Marigorringoa* ezagutuko dute (gutun bat jasoko dute unitatea aurkeztuko die...)

- Ikastolara joaten ez zen *Arroxali* neskatoaren ipuina.
- Ikastolako objektuak: erabilera, nolakotasunak, zainketa...
- Ikastolako pertsonak (irakaslea, autobuseko eta jantokiko langileak...) : funtzioak eta harremanak, elkarbizitzarako arauak edo berezitasunak.
- Ikastolako espazioak (jolasokiak, komunak...): erabilera segurtasun neurriak, autonomia.
- Artelana: Rafael Ruiz Balerdi. *Pintura*, 1980.

2. gaia: ETXEA. Etxea goxo-goxo

- Hiru *txerrikumeak* ipuina.
- Etxeko pertsonak, senideen arteko harremanak eta elkarbizitzarako arauak edo berezitasunak.
- Etxeak nolakoak diren, nola eraikitzen diren eta bertako espazio nagusien ezaugarriak eta funtzioak (sukaldea, komuna, egongela...) beren erabilera eta segurtasun neurriak.
- Etxean dauden objektuak: zainketa eta erabilera.
- Artelana: Vincent Van Gogh. *Nire gela*, 1889
- Entzunaldia: Tomaso Albinoni. *Biolin, hari eta organorako adagioa*.

3. gaia: MENDIA. Mendian udazkenean

- *Txanogorritxo* ipuina.
- Mendiko biziduna: animaliak eta landareak.
- Mendian bizi edo lan egiten duten pertsonak (izena eta lanbidea)
- Mendiko espazio, osagarriak eta udazkeneko aldaketak.
- Artelana: Alexander Calder. *Itsas paisajea*, 1947.
- Entzunaldia: Vivaldi. *Udazkena*.

4. gaia: GABONAK. Gabonak, Gabonak, hau zoriona!

- Bere amonarekin bizi den neskatxa behartsu baten ipuina: *Olentzeroren zuhaitza*.
- Olentzero ezagutuko dugu.
- Gabonetako ezaugarriak: Zer egiten dugu Gabonetan? Familiakoak bildu, elkarrekin afaldu eta bazkaldu, etxea apaindu, opariak jaso...
- Artelana: Paul Klee. *Hammamet-eko motibo bat*, 1914.
- Entzunaldia: Wolfgang Amadeus Mozart. *Jostailuen sinfonia*.

Lehen hiruhilabeteko behaketarako adierazle nagusiak

- Gelara egokitzea. Elkarbizitzan parte hartzeko interesa.
- Irakaslearekiko eta lagunekiko jarrera.
- Sentimendu eta bizipenen adierazpena.
- Oinarrizko beharrak (pixagalea, egarria...) erregulatu eta adieraztea.

Bigarren hiruhilabetean gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

5. gaia: NEGUA. Hotzez dar.dar

- Hegoa hautsita daukan txoriari aterpea ematen dion *Izei txikia* ipuina (laguntza)
- Neguko eguraldia (elurra, euria, kazkabarra...). Gu zientzialari: fenomeno atmosferikoak behatu eta datuak bilduko ditugu.
- Guk zer egiten dugu neguan? Arropa jantzi, berogailua jarri, janari beroak jan...
- Natura neguan: animaliak eta landareak.
- Artelana: Ascensio Martiarena. *Paisaje elurtua*.
- Entzunaldia: Vivaldi. *Negua*.

6. gaia: INAUTERIAK. Mozorro, zomorro

- Ameriketatik Euskal Herrira inauterietan etortzen diren bi indiar txikiaren ipuina: *Bi indiar txiki inauterietan*.
- Inauterietako mozorroak eta ekintzak: mozorro eta pertsonaia batzuen ezagutza (sorgina, pailazoa, Miel Otxin...), erlazioak (sorgina-erratza), kopuruak, buruhandiak (beldurrari buruz hitz egin) txarangak...
- Proiektua: Ikastolako Inauteriak antolatzen (mozorroa prestatu, abestiak ikasi, egitaraua adostu...).
- Artelana: Wassily Kandinsky. *VIII. Konposizioa*, 1923. Irudi geometrikoen behaketa.
- Entzunaldia: Mozart. *Martxa turkiarra*.

7. gaia: GORPUTZA eta JANTZIAK. Hau de nire gorputza, polita benetan!

- Jantzi asko dituen eta ingurukoekin oso harroputza den ehunzango baten ipuina: *Ehunzango kaskarina*.
- Gorputzaren zati nagusiak eta ezaugarri bereizgarriak (sexua, pertsonen arteko desberdintasunak).
- Gorputzaren mugimendu aukerak esperimintatu: ibilera, dantza, jauzia, lasterketa...
- Gorputzaren oinarrizko beharrak: higiena, jantzia, elikadura, loa...
- Artelana: Joan Miró. *Goizeko izarra*, 1946.
- Entzunaldia: Txaikovsky. *Konfiteetako Maitagarriaren dantza* (*Intxaur hauskailua* baletako atal bat).

8. gaia: EGUNEROKO JANARIAK. Jan, jan, jan eta jan

- Janari bereziak eta sendagaiak asmatzen dituen sukaldari-sendalari Sendajan ipuina: *Sukaldaria eta sugandila*.
- Janari motak. Elikadura osatu eta orekatu baten garrantzia.
- Janarien salerosketa: azoka
- Gu sukaldari: mazedonia.

- Artelana: Ignacio Zuloaga. *Guindo jaunaren udareak*, 1944.
- Entzunaldia: Chopin. *7. vals-a*

Bigarren hiruhilabeteko behaketarako adierazle nagusiak

Lehen hiruhilabetekoez gain beste hauek:

- Gorputzaren atal eta ezaugarri batzuk identifikatzea.
- Gorputzaren mugimendua: oinarrizko trebetasun motrizak (ibilera, jauzia, lasterketa, jaurtiketa).
- Mezu eta testu sinpleen ulermena.
- Oinarrizko hiztegiaren ulermena/ekoizpena.
- Kopuru jakin bat aipatuz gelako gauzekin multzoa osatzea. Hainbat elementu dituzten multzoak emanda, ahoz zenbat dauden adieraztea. Halaber, zenbakien segida errezitatzea.
- Antolatzen diren festetan parte hartzea.
- Interesa azaltzea.

Hirugarren hiruhilabetean gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

9. gaia: ETXE ABEREA. Behin batean baserrian

- *Urrestillako lau musikariak* ipuina, non baserritik ihes egin behar izan duten lau etxe abereren gorabeherak kontatzen diren.
- Ukuilua. Ukuiluko animaliak, izenak, ezaugarriak, ohiturak... (hegazti batzuk).
- Oilategia: oilategiko animaliak, izenak, ezaugarriak, ohiturak...
- Hiri edo herrietako etxeetan bizi diren animaliak, izenak, ezaugarriak, ohiturak...
- Artelana: Luis Otaegi. *Natura kutxetan*, 1980.
- Entzunaldia: C. Saint Saëns. *Animalien inauteria: txoritegia*.
- Etxetik ekarri beharrekoa: animalia baten argazkia edo aldizkari-zatia, ahal duzuela formatu apaisatuan.

10. gaia: GARRAIOAK eta KALEA. Ran Roberran, po-po-po...

- *Nola ibili munduan ohetik jaiki gabe* edo Libe neskatoaren ipuina. Gau natean oheratu eta ametsetan, ohea leihotik atera da hegan...
- Kalea: osagarriak, bertan lan egiten duten pertsonak...
- Garraioak: lurrekoak, airekoak, uretan ibiltzen direnak. Beren ezaugarriak, geltokiak...ikusiko ditugu.
- Trafikoaren ezagupenerako lehen urratsak landuko ditugu ziurtasun neurri batzuk ezagutuz: zebrabidea, semaforoa...
- Artelana: Antonio Lopez. *Gran Vía*, 1974-81.
- Entzunaldia: Edvard Grieg. *Goizetik*, Peer Gynt, Suite 1. OP. 46ren lehen atala.

11. gaia: LOREAK eta BARAZKIAK. Eguzkitan din-dan

- Anderren aitonaren baratzean gertatutako istorio harrigarri bat kontatzen dun *Azenario erraldoia* ipuina.
- Baratzeako landareak eta lanak. Animaliak eta udaberria baratzean.
- Zelaiak eta lorategiak udaberrian, bertako animaliatxoak (tximeleta, barraskiloa, erlea...).
- Artelana: Claude Monet. *Artistaren lorategia Givernyn, 1900.*
- Entzunaldia: Vivaldi. *Udaberria.*
- Etxetik ekarri beharrekoa: Landare edo lore baten argazkia edo aldizkari-zatia, ahal dela formatu apaisatuan.

12. gaia: IBAIA eta ITSASOA, URETAKO JOLASAK. Igerian, jolasean...

- Haizemari sorgin txintxoaren ipuina.
- Ikasturtean ikasitako hainbat gauza gogoratuko ditugu.
- Uraren inguruan: itsasoa, ibaia, igerilekua, uraren ezaugarri batzuk.
- Oporrak eta herriko festak: kirola, mendi irtenaldiak, bidaiak, dantzak, San Joan sua...
- Artelana: Menchu Gal. Txalupak arrastirian (Hondarrabia), 1982.
- Entzunaldia: Vivaldi. Uda.
- Datorren ikasturtean izango duten maskota bidai laguna Txrritx kilkerra, aurkeztuko die Ttanttok.
- Oporretatik bueltan etxetik ekarri beharrekoa: oporretako argazki bat, formatu apaisatuan, non haurra oporretako ekintzaren batean azaltzen den, bera bakarrik edo familiarreko edo lagunekin.

Hirugarren hiruhilabeteko behaketarako adierazle nagusiak

- Antzerkietan, abestietan, jolasetan, dantzetan parte hartuz gorputzez adieraztea.
- Zentzumenen bidez inguruko errealitatea behatzea (ikusmena, entzumena, ukimena...)
- Poliki-poliki eguneroko ekintzetan autonomia garatzea.
- Animalia eta landareekiko interesa azaltzea.
- Inguruko objektuen eta pertsonen ezaugarri batzuk aipatzen jakitea: izena, kolorea, tamaina...eta euren berdintasunak eta desberdintasunak antzematea.
- Ipuinak, abestiak, olerkiak, mezuak... beren hasierako euskararen ezagutza mailatik abiatuz poliki-poliki interpretatzea (ulertzea).
- Mezu sinpleen ekoizpena eta beharren adierazpena, oinarritzko hiztegia eta esamoldeak erabiliz.
- Objektu bildumak manipulatu, gehiago eta gutxiago non dagoen adierazten jakitea.
- Zenbakien segida errezitatzeko interesa azaltzea.
- Espazioan objektuek eta pertsonak berarekiko duten kokapena adierazten duten mezuak (goian, behean, gainean, azpian, aurrean, atzean) egoki interpretatzea.

- Plastikak eskaintzen dizkion adierazpen aukerak eta baliabideak erabiliz esperimentatzea.
- Kantuak, jolaserako abestiak... entzun eta ataltxo batzuk gogoratzea.